

ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA

II. Eranskina: TXEKIN – BIDERAGARRITASUN-PLANA

2022KO DEIALDIA

EKINTZAILEAK: KUDEAKETA GIDA (ESKAERA)

Informazio hau arretaz irakurri eta adierazitako jarraibideak bete TXEKIN–Bideragarritasun plana proiektuen kudeaketa zuzena egiteko.

Zalantzarik izanez gero edo argibideren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin, helbide honetan:

sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus

TXEKIN PROGRAMA

Negoio-idea berriak garatzen laguntzea: ekintzaileei laguntza guztia ematen zaie beren proiektuak definitu eta zehaztu ditzaten eta enpresa bat sortzeko asmoa egia bihurtzea errazago gerta dakien.

Programari esker, enpresa-asmoa aztertzen da, hau da, asmo horren aldaera adierazgarrienak, arriskuak, eta abar, eta hori guztia BIDERAGARRITASUNAREN ETA NEGOZIOAREN PLAN batean hezuramaitzen da. Plan hori izanda, errazago da enpresa abian jartzeko finantzaketa bilatzea.

Programa hori [Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuak](#) eta Europako Gizarte Funtzak (EGF) sustatu eta finantzatzen dute ("EGFak zure etorkizunean inbertitzen du"), eta, programa garatzeko, aholkularitza-zerbitzuak ematen dituzten entitateen sare bat du programak. Aldez aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuak homologatu ditu entitate horiek.

Enpresa sortzeko proiektu bat duten eta TXEKIN programan parte hartu nahi duten pertsonak "BIDERAGARRITASUN-PLANA" aholkularitza-zerbitzua emateko [homologatutako entitateetako bat](#) hautatu eta harekin harremanetan jarri beharko dute. Entitate horiek ekintzaileari lagunduko diote prozesuaren fase guztietan.

73/2021 Foru Agindu horren babesean [homologatutako entitateek](#) Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuak argitaratutako laguntza-programak eta urteko deialdiak arautzen dituen araudiaren arabera eman beharko dituzte zerbitzuak.

Enpresa sortzeko aholkularitza-zerbitzuak Bideragarritasun-plana – proiektu bakoitzeko gehienez 25 orduko dedidazioa aurreikusten du.

2022. URTEKO DEIALDIA

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

- Urteko deialdian eskaera ondoko aplikatiboan egingo da:

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

- **EKINTZAILEEK (entitate homologatuaren laguntzarekin)**, ondokoa egin beharko dute:
 - **Eskabidea** bete eta dokumentuak erantsi.
 - Proiektua justifikatzea eta eskatutako dokumentuak eranstea.

LAGUNTZEN IZAERA

Laguntzak GAUZAZKO LAGUNTZAT hartuko dira, eta enpresa sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko eskubidea emango diote onuradunari.

Gauzazko laguntzak direnez:

- Dirulaguntzaren pertsona edo entitate onuradunek ez dute kobratzeko eskubiderik, eta ez dute diru-kopururik jasoko.
- Entitate homologatuek, zerbitzuak ematen amaitu ondoren, emandako zerbitzuaren faktura aurkeztuko diote zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiari. Faktura hori kalkulatzeko, jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta araudi erregulatzailan aurreikusitako moduluak hartuko dira oinarri.

Diruz lagundutako programa honen bidez finantzatutako ekimenak, bat datoz Europako Gizarter Funtzaren (EGF) Euskal Autonomia Erkidegorako 2014–2020 programa operatiboarekin. Ondorioz, ekintzaileak eskuratzen dituen eskubideak, betebeharrak eta erantzunkizunak laguntzaren onarpenarekin, besteak beste, ondokoak dira: aparteko kontabilitatea eramatea, informazioa gordetzea, dokumentazioa eskuragarri egotea, DOCEko onuradunen zerrendetan sartzea, eta europa mailako finantzazioaren zabalkundea.

BIDERAGARRITASUN PLANA

EDUKIA

– ATALA I: APLIKAZIO INFORMATIKORAKO SARBIDEA ETA ESKAERA.

1. Eskaera egiteko jarraitu beharreko urratsak.
2. IKASEKIN aplikazio infomatikorako sarbidea.
3. Proiektuaren eskaera.
4. Proiektuaren eskaera egiteko epea: bideragarritasun plana.
5. Egitasmoaren publizitatea.



ATALA I: APLIKAZIO INFORMATIKORAKO SARBIDEA ETA ESKAERA.

Organo kudeatzaileak TXEKIN programaren onuraduna dela egiaztatu ondoren, webgunera sartzeko gakoak emango zaizkio ekintzaileari, dagokion eskaera egin ahal izan dezan **"TXEKIN – BIDERAGARRITASUN PLANA"** jarduketaren esparruan.

2. DIRUZ LAGUNGARRIA DEN JARDUERARA SARBIDEA ESKATU: EMEKIN–Bideragarritasun plana (2. URRATSA).

MARKATU SOILIK ESKATU NAHI DUZUN LAGUNTZA

TXEKIN-BIDERAGARRITASUN PLANA

3. EKINTZAILEAREN DATUAK OSATU (3. URRATSA).

Horretarako, ekintzaileak programan zerbitzuak ematen dituen [homologatutako entitateetako bat](#) hautatu beharko du.

[\(Ikus homologatutako entitateen zerrenda\)](#)

3. PROIEKTUAREN ESKAERA.

1. PROIEKTUAREN ESKAERARI ALTA EMAN (4. URRATSA)


PROIEKTUAK

Proiektu berria

Nire proiektuak



2. ESKABIDEAREN ATAL GUZTIAK OSATU ETA ETA DOKUMENTUAK ERANTSI (5. URRATSA).



Ekintzaileak egin beharrekoa:

- 2.1.– Eskatutako informazioa bete.
- 2.2.– Ondorengo dokumentuak erantsi:

1. Urteko administrazio eskaera.
2. Ardurapeko adierazpena.
3. Aitorpen arduratsua EGF_mikrodatuak.
4. Ekintzailearen NAN kopia.

3. ESKAERA BIDALI (6. URRATSA).

Eskaera bidali aurretik, mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

Proiektuaren ESKAERAREN jakinarazpena, **BIDALI** aukera hautatuz egiten da.



Proiektuaren **fasea IZAPIDETZEN ARI DEN FASE**ra aldatuko da.

4. PROIEKTUAREN ESKAERA EGITEKO DATAK: BIDERAGARRITASUN-PLANA.

2022/01/01–2022/06/31 bitartean hasitako proiektuak.	2022/07/21era arte 12:00.
2022/07/01etik 2022/10/31era arte hasitako proiektuak.	Hilabete proiektua hasten denetik.

5. EGITASMOAREN PUBLIZITATEA.

Pertsona onuradunek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneke, Turismoko eta Landa Inguruneke Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzazioari publizitate egokia eman beharko dute, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzazio publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenei bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

“logoak” eskuragarri [HEMEN](#):

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzailetasuna/txekin>